

### **“Elikagaien industriaren berrikuntza: produktu osasungarri eta seguruen garapena”**

Apirilaren 19an, Markina-Xemeinen Leartiker-Elikagaiak antolatutako jardunaldi teknikora elikagaien industriako sektore ezberdinetako 30 entzule inguru bildu zen.

Jardunaldiaren irekiera Naia Andonegi, Leartiker-Elikagaien Teknologia Arduraduna, eta Maria Txakartegi, Azaro Fundazioko Teknikariak zuzendu zuten. Merkatuko joeren ikuspegi globaletik abiatuz, IV eta V gamako produktuen sorreran gaur egun erabiltzen diren produktu osasungarrien kontzeptu eta teknologia berriei buruz hitzeginez eman zioten hasiera jardunaldiari.



[ICTAN-CSIC](#), Madrileko Institutu eta Teknologia Zentruak hizlari lanetan haragi- eta esne-sektoreetan adituak etorri ziren. Landutako gai ezberdinen artean, in vitro haragia sortu arteko haragi-bizi lehengaiaren berrikuntza azpimarratu behar da, kontutan hartu behar baita haragian eskaria geroz eta handiagoa dela eta hornigaia falta dela. Esnearen sektoreari dagokionez, gai hauen kontsumoari lotutako onurak kontutan hartuta berrikuntzak sektore honetan duen garrantziari buruz hitz egin zen; hezurren osasuna, osasun kardiobaskularra, hortzetakoa, digestiboa eta buruko gaixotasunen inguruan egindako ikerketak ere bai.

[TATE&LYLE](#) osagaien enpresarekin *sucralosa* deituriko azukrearen aldaera berriak eskaintzen dituen aukeretatik ikasteko parada izan genuen.

#### *Sucralosa*

osasungarriagoa izanda eta azken produktuan koste gutxiago sortzen duen heinean, gaur egun edariak gozotzeko erabiltzen den osagai bat da, gehienetan freskagarriak.

Hurrengo hitzaldia [UNILEVER](#) en eskutik etorri zen eta produktu osasungarri berrien merkaturatzeari buruz hitzegin zuten. Adibide moduan Flora PROACTIV margarinaren merkaturatzea jarri zen: gizarteak kolesterolaren arazoa konpontzeko duen beharrianera lotutako produktuaren kontzeptutik hasi; Margarinari esterol begetalak barnertzeko egindako ikerketa zientifikoa eta Europar Batasunean elikagaien alegazioetan jarraitu beharreko

arazko pausuak.

Jardunaldian izandako beste hitzaldi interesgarrietako bat urdaiazpiko onduan gatzaren murrizketa prozesuari buruz [IRTA](#) k emandakoa izan zen. Elikagaien industriari irtenbideak emateko teknologia berrien ikerketan jarduten duen Zentro Teknologikoa da.

Azkenik, [ELIKA FUNDAZIO](#) ko Edurne Gantxegik elikagai funtzionalen etiketatuan osasun eta nutrizio alegazioen araudiak egun duen egoera azaldu zuen.

Jardunaldiari amaiera emateko lunch bat egon zen eta bertan jardunaldira hurbildutako publikoak hizlariekin egoteko aukera izan zuen. Jardunaldiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jarri kontaktuan Azaro Fundazioa edo Leartikerrekin.